Kongeriket norge-Norvegiaz

Andoni Uzkeda Mateo. Iruñea

Flauta lehenik eta oboea ondoren argi hastea iradokitzen duen gaiari ekin zaizkio. Geroxeago haridun musikatresnek gaia dute bizkortu: eguzkia sortu da. Boilontxeloen txandaren ondotik tronpak hasierako airea errepikatu du: natura da iratzarri. Honelaxe hasten da Norvegiatik (are mundu osotik edo ia-ia) iritsi zaigun musikaririk liluragarriena, 1843. urtean Berge-n jaio Edvard Grieg haundiak idatzitako “Peer Gynt” alegia.

Norvegia izena aditzen dugularik arras irudi ederrak otzen zaizkigu: Edvard Grieg-en musika joria, Roald Amundsen-en bidaia luze bezain miresgarriak, natura basati bezain naroa... Herria baino postala islatzen da gure buruan. Hango eguraldiaren berri entzuteak, berriz, ametsezko irudiak hausten dizkigu. Irudiok Hegoaldean koka genitzake soil-soilik. Hegoaldea lurra lan dezaketen toki bakarra da (patatak eta laboreak). Abeltzaintzaz, basogintzaz eta arrantzaz bizi dira batik bat. Zenbatenaz eta iparralderago joan hainbatenaz eta gogorragoa da klima. Berau Iparraldean artikoa da, zinezko laborria sorrarazten duen negu luzea duena.

Badauzkan 323.878 kilometro karratuek, hazkunde demografikoak bere horretan jarraituz gero, 2.030.ean bortz milioi biztanle ikusiko dituzte. Hagitz dentsitate gutiko herria da Norvegia.

Bertze alde batetik historian gertatuek ere garrantzi haundia ukan dute Norvegiari buruz dugun irudia osatzeko unean. Zortzigarren mendetik aitzina bikingoek egin sarraski-bidaiek arront ospe bitxia eman zioten norvegiar herriari. Gero, nagusitasuna ahulduz joan zelarik bertze estatu boteretsuagoen mende iragan zuten txoil denbora tarte haundia. Danimarkaren agindupean 434 urtez egon zen Norvegia. Zehaztapen historikoez ez dugu idazki hau gainezkatuko. Honetaz argibide gehiago nahi duenak historia liburuetarat jotzea dauka.

Honat gakartzan gaia hizkuntza da eta hizkuntzaz denaz bezainbatean soziolinguistikatik eman dakioken soa. Badirudi norvegiera eskandinaviera zaharretik sortu zela ahaide hurbil dituen daniera eta suediera bezalaxe. Honetaz badira halako idazki errunak, hots hirugarren eta hamazazpigarren mendeen artean erabiltzen ziren zeinuez eginak, soilik herri germaniarren eta eskandinaviarren hizkuntzetan ediren daitezkeenak. Halarik ere kristautasunarekin baterat erromatar alfabetoa bere egin zuen norvegierak.

Hizkuntzari dagokionez garrantzirik haundiena ukan duen gertaiera Danimarkaren menpe eman urteak dira, doike. Hegoaldeko barrideen aginduetara egon ziren urteetan oraindik antzeman dezakegun banaketa agitu zen. Herritarrak eta kaletarrak. Goi mailako jendeak, hirietan batez ere, daniera bere egiten zuteno herri zeheak norvegiari eusten zion (tokian tokiko dialektoak ederki bermatuz).
Badirudi guren aunitzetan aipatzen zaizkigun pretigioa-unibertsaltasuna-modernitatea eta gaineko lelo memeloek Oslo hiriburu duen herrian ere aipatzen zirela eta jendeak, hemen bezalaxe, horixe irensten zuela. Beraz baserria versus kalea han ere emaiten omen zen... eta da.

Hemeretzigarren gizaldian, Danimarkatik bereiztearekin baterat, Norvegia zein norvegiaren aldeko joera nabaria sortu zen. Abertzaletasunak nortasuna finkatuko zuten ezaugarriak tinkotu nahi zituen. Asmo hau bi norabidetan gauzatu zen.

Daniera izanen da bi norabideotako baten funtsa eta muina. Ordura arteko ofizialtasun eta nagusitasuna zeuzkan hizkuntza oinarritzat hartuta norvegieraren ahoskera nahiz halako “ukitu” gramatikalaz ezarriz “bokmal-a” (liburuko hizkuntza) sortu zen, herri hizkeran “riksmal-a” (aberatsen hizkuntza) ere bataiatua. Hiri haundietan, administrazioan eta goi mailako ikastetxeetan onespen haundia izan zuen... eta du. Norvegiar literaturak eman duen erraldoirik haundienak, Henrik Ibsen (Skien, 1828 – Oslo, 1906) alegia, “bokmal”-aren aldeko apustua egin

zuen, adibidez norvegiar herri hipertradizionalistaren zokoak oro inarrosi zituen “Panpinen etxea” antzerki lana idatzi zuenean (gaur egun Nora protagonistaren hondar joerak gure herri hain “aitzinatu” honen bazter aunitz ere ederki aski astinduko lituzke).

Ivar Aasen

Bertze alde batetik norabide bereziko hautua danieraren nagusitasuna benetan itogarria zen bitarte luzean bertako hizkuntzari eutsi ziotenek burutu zuten. Norvegia menpean zegoeno bizirik geratu ziren norvegieraren dialektoak aintzatetsirik hizkuntza nazionala izanen zena sortzeari ekin zitzaizkion.

Sondmoren 1813. urteko agorrilaren bortzean sortu zen Ivar Aasen dugu asmo honi azkarren eutsi zion hizkuntzalaria. Hizkuntz “klasikoak”, latinera eta grekera, bazekizkien hala nola orduko Europako garrantzizkoenak ere.

Herri xeheak erabilitako hizkuntza aztertu zuen. Lan zinez mardula egin zuen eta haren ondorioz “herri-norvegieraren gramatika” (1848.goa) eta “herri-norvegieraren hiztegia” (1850.ean) idatzi eta argitaratu zituen. Hizkuntza “berri” hau “nynorsk-a” bataiatu zuten (norvegiera berria, hitzez hitz). Nahiz eta ekialdeko leku menditsuetako eta mendebaldeko fjorden barneko herriñoetako hizkerak oinarritzat hartu zuen “nynorsk” hau Norvegia osoko hizkuntza izaiteko sortu zen. Aasenek aukeratu zuen ortografiak jatorri berekoak diren islandiera, suediera eta danieraren ortografiarekin antza haundiagoa zuen.

Norvegiera “berri” honek gero eta aldeko gehiago izan zuen harik eta 1944 goren jo zuen arte. Haurren ehuneko hogeita hamalauk lehen hizkuntzat zuen. Ondotik irabazitako eskualde osoak galduz joan zen eta gaur egun ehuneko 16k-edo erabiltzen du.

Erdiesten ari zen arrakasta batetik eta sorterria goretsi nahiak bertzetik bi hizkuntzak bakar bat izaitearen aldeko joera gero eta haundiagoa sortu zuen. Bokmal hizkuntzan gero eta norvegieraren ezaugarri gehiago sartuko zuten nynorsk-arekin arras bat egin arte.

Gaur egungo egoerak zera dioku. Bokmal-a nagusi da eta nynorsk-ak, nahiz eta osasuntsu dagoen, nekez eusten dio bere portzentaiari. Zio aunitz egon daiteke honen guztiaren gibelean. Lehengo eta behin hirietan, administrazioan eta goi mailako ikasguetan aspalditik heldu den ohiturari jarraikitzea da errezena, berez ehuneko 80k bokmal-a erabiltzen du. Gainera nynorsk-aren gramatika, aditza ere, zailagoa da bokmalarena baino eta aisa eremu murritzagoa du Aasenen eredua ezartzeko lana izugarri zailtzen duelarik.

Ondorio batzuk

Hirietatik baztertuta dagoen arren nynorsk-ak ez du desagertzeko arriskurik eta bokmal-a bezain ofiziala da Norvegia osoan. Funtzionarioek bi hizkuntzak jakin behar dituzte eta biztanleek badute paperak nahi duten hizkuntzan jasotzeko eskubidea. Haboro! Norvegian samieradunek 20.000 hiztun inguru izanik ere beren hizkuntza (finougriar familiakoa) norvegiera bezain ofiziala dute. Kárásjohka-Karasjok, Guovdageaidnu-Kautekeino, Unjárga-Nesseby, Porsanger, Deatnu-Tana eta Gáivuotna-Kafjord eskualdetan samiera ofiziala da.

Euskal Herri petraldu honetan badugu norvegiarrengadik ikasi beharreko ikasgairik!. Aurrena zapalkuntzak ez dirauela betiko. Norvegiarrak gauza izan ziren danimarkarrengandik bereizteko (Norvegia-Danimarkako erregea Napoleonen aliatua zen eta hark galdu izanaz baliatu ziren -1814.ean- bereizteko eta Suediarekin batzeko 1905. urte arte).

Bigarrena: nork bere burua izan nahi izanez gero nortasuna bermatu behar da eta, herriaz denaz bezainbatean, ez da hizkuntza baino deus nortasunazkoagorik. Gai izan ziren danieratik bereizteko oso hizkuntza antzekoak ziren arren (suedieradunek, danieradunek eta norvegieradunek, nork bere hizkuntzan, ez dute aparteko arazorik elkar ulertzeko). Danieratik abiatuta, bokmal hizkuntzaren kasuan, hizkunta nazional berri bat eraiki zuten eta aspaldiko norvegieraren dialektoetatik bertze hizkuntza nazional berri bat sortu zuten biak ofizialak izanik. Kontutan hartzen badugu Norvegiak bortz milioi baino biztanle gutiago duela ohar gaitezke zenbaiteraino aintzatesten dituzten hizkuntz aferak. Norvegiar horietatik seiehun milak baizik ez du nynorsk delakoa erabiltzen eta halere nagusia bezain ofiziala da. Guti goiti beheiti Sartagudan edo Tafallan bezala...(edo Bilbon).

Hirugarrena Samieradunek beren hizkuntza eskubideak bermatuta dituzte arestian aipatu eskualdeetan, horrek, hemen ez bezala, Norvegian dakarren guztiarekin: eskoletan nynorsk, bokmal nahiz samieraz ikas daiteke. Egunkariak hiru hizkuntzetan ero eta irakur daitezke. Funtzionariek badute samieraz erantzuteko beharra halaxe eskatuko baliete. Leitzan udal paperak euskara hutsean aurkeztea debekatu zutela (nahiz eta eskatzera erdarazkoak eskura zitezkeen) gogoratzen zaigunean egiazta dezakegu zeinen urrun dagoen gure egoera ofizializatua (zona vascófona, to!) norvegiar eredutik.

Laugarrena, eta lasai irakurle jasaile hori ez baihaut gehiago aspertuko, Suomiko Errepublikan Elias Lonnrot-ekin gertatzen den bezalaxe Norvegian ere miresten dute hizkuntzaren aldeko lan eskerga zinez eskergarria egin zuen Ivar Aasen Haundia. Baina ez Osloko Filologia Fakultateko arduradun nagusiak bakarrik, baita herri xehe xaloak ere. Denek ezagutzen dute eta nynorsk hizkuntza erabiltzen ez dutenek ere begirunez onesten dute haren asmoa.

Daniar inperiotik bereizi izanak etxekoa aintzestea ekarri zuen, doike. Ibsenen lanak (batzuek Norvegiako Shakespeare dela diote) miresmenez irakurtzen dituzte, Edvard Grieg-en musika zoragarria entzun eta ikasi egiten dute. Noizko gure Euskal Herri desitxuratu-globalizatu-ergelizatu honetan halako joera bat Xalbador, Azkue, Aitor Arana, Axular edo Lazarragaren alde? Noiz Aita Olazaran, Aita Donostia edo eta Guridirendako behar duten ezagutza? Aisa aintzatetsiagoak dira gurean zezenak odolusten dituzten zekenak zinez merezi dutenak baino. Aurrera Norvegia eta... Bolie!